

ARTIKUTZAko itzulia

Mikel Arrizabalaga Aizpurua

"Berriro igo nauzu ene mendira,
Oroigarri zaarrei maitez begira ...
Andre Lurrak yaulki ditu igaliak;
Zurbil dauka arpegia, itzal begiak."

Xabier Lizardi - "Ondar gorri"

ARTIKUTZAko zirkoa osatzen duten mendien artean apenas aurkituko dugu mila metro baino gehiago duen gailurrik, baina itzuli osoa burutzen badugu aukera paregabea izango dugu mendi-mazeletatik haran estuen bihotzeraino zabaltzen diren baso trinkoak ikusi eta liluratzeko. Mendeetan zehar, inguru hauek

bizimodu desberdinen garapen gunea izan dira eta bizitzeko modu eta jarduera horien guztien aztarnak nonahi aurki ditzakegu. Ibilaldi honetan ez gara lurralde pribilegiatu hauetan kasik murgilduko, bere barnean gordetzen dituzten altxor misteriotsuak oraingoz naturaren altzoan lagako ditugu, deskubritzeke, babesturik, isilik...

Ezkerrean.
Artikutzako urtegia eta
basoak
Eskuman.
Artikutzako pagadia
(Urdallue)

Oiartzungo Karrika auzotik Artikutzara doan errepidean, 12 kilometroa igaro eta berehala *Kausoroko* zabalera helduko gara. Eskuinetara, pago-enborrak pilatzeko erabiltzen duten lur-sailean edota bide bazterrean ibilgailua utzi eta ibilaldiari hasiera emango diogu.

Kausoroko zabalditik (610 m) abiatu eta berehala "*Kauso I*" izenez ezagunak diren bi mairubaratzen aztarnak aurkituko ditugu, horietako bat agerian dago eta zazpi metroko diametroa du. Gure aurrean mendixka bat dugu eta lurrean ondo markaturiko bideak bertara bideratuko gaitu. Muino honen gainean, "*Kauso II*" izeneko bi mairubaratzekin egingo dugu topo (640 m). Aurkako aldetik aldapatxoa jaitsiko dugu eta gure ezkerretara Artikutzara doan errepidea utziz, oso nabarmena den *Bunaniarriren* tontorrerantz abiatuko gara.

Altura hartzen dugun heinean aldapa leunduz doa eta tontorrean heltzeko oso metro gutxi falta direnean bideak ezkerretara hartzen du, baina guk zuzen aurrerantz joko dugu eta aurki gailurra izango dugu. Harri-multzo baten gainean Lezoko mendizaleek jarritako danbolin batek gutunontziarena egiten du eta hogeai bat metro aurrerago, erpin geodesikoa (781 m).

Hemendik, panoramika oso ederra da; *Jaizkibel I*, *Aiako harria IE*, *Larrun IE*, *Kopakoarri IE*, *Bianditz E*, *Artikutza HEH*, *Mendaur HEH*, *Urdaburu-Adarra-Mandoegi HM*. Urrutiago eta eguraldi ona egiten duenean; *Aralar*, *Aizkorri*, *Anboto*, *Izarraitz*, *Ernio* eta *Euskal Pirinioak (Xoldokogainatik Belagua eta Zuritzako mendietaraino)* ikus daitezke. Mendiez gain, *Kantauri* itsasoak eta gure itsasertzak *Errobi* ibaiaren bokaletik *Matxitxakoraino* marrazten duten *lerroa* ere oso nabarmena da.

Paisaiatz gozatu ostean, *Gogorren Dorrerantz* zuzentzen den xenda hartuko dugu eta *Bianditzko* lepora daraman azken aldapa maldatsua jaitsiko dugu errepidearekin bat egin arte.

*Bianditz*eraino hedatzen den bidea oso eroso da, belarrezko tapizez estalia eta batere zailtasunik gabekoa. Lehenengo aldatsari aurre egin bezain laster, aldaparen erdian gutxi gora-behera, bidezidor batek ezkerretara hartzera gonbidatzen du (765 m). Malda leunduz eta iguera samurtuz, bide hau zuzen-zuzen aurrean ikusiko dugun pagadi baterantz doa. Pagadi ondora heltzean (790 m), gure aurrean beste muino bat ikusiko dugu eta harantz abiatuko gara. Pagadia beti gure ezkerretara; eskuinetara behean, *Exkax*, *Artikutzako* sarreran dagoen begiralearen etxea. Aldapa igotzen hasi eta harri batean GR 121ari dagozkion bide-seinaleak (txuri-gorriak), zaharrak, ikusgaitzak (780 m). *Exkaxburu* izenez ezaguna den gainera heldu aurretik, metro batzuetan bidea pagadian sartzen da, muinoa saihestuz. Gu, zidorra jarraituz, *Exkaxburu* igoko gara (818 m). Hemen izango dugu *Artikutzako* lurrak mugatzen duen alanbrezko hesiarekin lehen kontaktua eta horren ondoan, artzaintza, ehiza eta arantza debekatuz, *Donostiako* udalak jarritako metalezko kartel bat. Hemendik aurrera, ia ibilbide osoa hesiaren paraleloan egingo dugu. Hesi honek oso ezberdina diren bi eremu banatzen ditu; alde batetik, lur zabalak, irekiak, garbiak... beste aldetik, berriz, baso trinko eta ederrez osaturiko lurrak.

Artikutza: historia laburra



EGUN ingurune babestua bada ere, historian zehar *Artikutzako* lurrak bizimodu ezberdinen eta bertako errekurso naturalen ustiapen ugarien lekuko izan direla esan behar da.

Historiaurrean, nagusiki biziraupeneko bizimodua izan bazen ere, azken mendeetan zehar bertako baliabide naturalak ustiatuz inguru hauetan zenbait industri gune sortu ziren, jarduera ezberdin hauen aztarnak *Artikutzako* sakan eta inguruko mendietan, nonahi aurki daitezkeelarik.

Abeltzaintza izan zen lur hauek jasan zuten lehen ustiapen mota. Horren lekuko, inguru hauetan aurkitutako aztarnategi arkeologiko ugariak dira eta horien bidez jakin izan da Eneolito eta Brontze Aroko gizakia bizi zela lur hauetan. Azken mende honetan industutako makina bat harrespil eta trikuharrien aztarnak topa ditzakegu *Artikutza* inguratzen duten mendien lepo eta mazeletan.

Hala ere, XIII. mende arte ez ditugu lehenengo erreferentzi historiko idatziak aurkituko, eta horietan, antzina lurralde hauek *Orreagako Monastegiaren* menpe egon zirela aipatzen da (egun, hainbat lekutan *Monastegi ospetsuaren* irudia den makulua landurik duten zenbait mugarri ikus ditzakegu). Garai hauetan eta batik batik XIV. mendean sortzen dira burdinaren metalurgia guneak, lau izanik ezagutzen diren burdinola hidrauliko garrantzitsuenak: *Urdallue*, *Elama*, *Goizarin* eta *Artikutzako parajeetakoa*. *Ondorengo mendeetan* jarduera honek aldaketa franko izan zituen.

Industria metalurgikoarekin guztiz loturik zegoen ikazkintza izan da paisaia eraldatu duen beste jardueretako bat, eta horren lekuko, pagadietan aurki daitezkeen "txondor-plaza" (txondorrek eraikitzekeo plataformak) ugariak. Ezin aipatu gabe utzi egurraren kontsumoarekin erlazionaturik dauden beste zenbait eginkizun, eta horien artean azpimarratzekoa da eltzegintza (teilak, adreiluak).

XIX. mendean *Mendizabal* eta *Esparteroren Desamortizazio* legearen arabera lurralde hauek besterenduak izan ziren, eta ondorioz, hurrengo urteetan jabez maiz aldatu ere. Europan gertatu ziren aurrerapen teknologikoaren ondorioz burdinolak baztertu egin ziren, erabat ahaztu arte. Ikatzaren ekoizpena eta meategien ustiapena (burdina batik batik) indartu zen eta XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran bide estuko trenaren eraiki zen aipatu ustiapen horiek erraztu asmoz.

Azkenik, 1919 urtean *Donostiako* udaletxeak erosi zituen lur hauek eta 1947 eta 1960 urteen artean *Enobietako* urtegia eraiki zen. Zenbait bizileku berri eta beste batzuk berriak eraiki ziren egun *Artikutza* herria izenez ezaguna dena sortu arte. Hauekin batera bideak berrituz ziren, batez ere *Oiartzundik* datorrena. Gaur egun eremu honen mantenerako familia gutxi batzuk baino ez dira bizi.

Bianditzko gaina oso nabarmena da hemendik. Berehala, hesiaren ondoan arditegi bat ikusiko dugu (820 m) eta horren ondoan debekukartel berri bat. Geroz eta zailago egiten da egoera hau ulertzea, hesiaren alde baten ehizatzerik badago eta bestean berriz ez! "*Hegaztiak irakurtzen balekitez ez lukete hesia gurutzatuko*". Metro batzuk goraxeago, Oiartzun, Goizueta eta Lesakako udalbarrutiek bat egiten duten tokian, *Irumugarrieta* izenez ezaguna den ingurura iritsiko gara. Hemen 10 mairubaratz eta bi tumulu dituen multzoa aurkituko dugu. Oso zaila da denak antzematea eta bi bakarrik nabarmen daitezke. Aipatu behar da ere, bertan oso berezia den mugarri bat dagoela, makulua eta gurutzea landuak dituen *Orreagako* antzina-ko mugarria hain zuzen (830 m). Egun, inguru hauetan hainbat lekutan aurki daitezke, garai batean lur hauen jabegoa noren eskuetan zegoen lekuko dira. Monumentu megalitikoak eta mugarria atzean utziz, orain urte gutxi Nafarroako eta Gipuzkoako lurak mugatzeko asmoz jarritako hesia igaroko dugu. Hemen PR 20ari dagozkion bide-seinaleak aurkituko ditugu (txuri-horiak), margotu berriak eta oso nabarmenak. Laster gara *Bianditzko* gailurrean (844 m). Arroka baten gainean gutunontziaren funtzioa betetzen duen danbolina, bere alboan gurutze zahar bat eta 10 bat metro eskuinetara erpin geodesikoa. Aurrerago, oroitari bat.



Gailurra utzi eta hesiaren paraleloan doan bidetik jarraituko dugu, aurrean oso gertu ditugun haitzetarantz. Laster *Galtzarrietako* lepoan izango gara (800 m). Haitzak saihestuz bidezidor bat ateratzen da ezkerretara, baina guk aldapa hartu eta tontorrera igoko gara. Haitzetan "*Galtzarrietako Gaina 813 m*" jartzen duen gutunontzia aurkituko dugu eta bere ondoan piramide formako metalezko irudia. Berehala, behean, basoen artean Domiko-ko lakua ikusi ahal izango dugu. Guk aurrera jarraituko dugu, gure ezkerretara, lerro zuzenean kokaturik, ehizatarien postuak eta eskuinetara, hesiaren bestaldean, gorosti bikainak utzita, *Burnaiztieta*-ko lepora ailegatuko gara (715 m). Lepotik iparralderantz doan pistaren ondoan oso gaizki zainduta dagoen aterpe bat dago; zikinkeria mordoa eta paretak pintadaz beterik.

Puntu honetan, *Bidango* gaina doan bidea utzi, hesiaren beste aldera pasa eta eskuinetara dagoen izeidiaren ondotik doan pista hartuko dugu. Bide hau jarraitu eta goi aldera iristean ezkerretara jotzea aukeratuko dugu. Hemendik, lehen aldiz *Izu* mendia ikusiko dugu. Bideak beherantz hartzen du *Almendruitze*ko atakaraino (645 m). Hona heltzean, alanbrezko hesiaren beste aldera pasatzeko aukera izango dugu berriz, baina guk, Artikutzako lurretatik doan bidea aukeratuko dugu; bide laua, bazterretan gorosti eta hagin ederrez beterik. *Pagolletako* lepora (673 m) iristean ehizatarien babeserako metalezko txabola bat, ehiza-postuak pagoetan "*zintzilik*"...? Berehala, pagadi batean murgilduko gara *Amekorrungo* atakarekin bat egin arte (664 m). Hesia pasa eta bideak *Izuren* tontorreraino eramango gaitu (829 m). Erpin geodesikoa eta "*Itsastarra mendi elkarteak*" jarritako gutunontzia. Panoramika oso zabala da; gertu *Arantza* herria, *Mendieder*, *Mendaur*, *Ekaitza*, *Ibintsu*, *Beltzuntze*, *Izu* eta *Unanu* mendiek osatzen duten zirkoak babesten dutelarik. Urrutiago, Pirinioetako mendiak, laino artean galduz.

Tontorra utzi eta bidea jarraituko dugu beherantz, *Urdallueko* harana eskuinetara ikusi eta *Oiargaratako* atakara helduko gara. Hau pasa eta alanbrezko hesitik urrutiratzen hasiko gara borda batera berehala iritsiz (653 m). Bordaren orman, iturri eder bat aurkituko dugu. Ezkerretara doan pista utzi eta gorantz abiatuko gara, pagadian barrena, pista eskuinetara utzita. Gainera iristean *Igineko* bordarekin (757 m) egingo dugu topo eta aurrerago aska batekin. Puntu honetan kantinplorak urez betetzea komeni da; oraindik ibilbidea luzea da eta ura hartzeko aukera gutxi dago. Aurrera jarraituko dugu eta pare-parean dugun aldapa gogor bati ekingo diogu. Gora iristean, berriz, Artikutzako mugarekin bat egingo dugu, *Karasuetako ataka* (984 m) igaro eta *Teruete*ko gaina saihesten duen bidea jarraituko dugu *Ibintzaraino* (951 m). *Karasuetako* atakan harrespil bat eta tumulu bat ikus daitezke. Ondo markatutako bideak Loitzatera gerturatuko gaitu, baina lehenago, izen bera daraman ataka aurkitu behar dugu, hau igaro


eta bidezidor nabarmen batek *Loitzateko* tontorreraino eramango gaitu (1048 m). Hemendik aurrera, jada ez gara Artikutzako lurretan berriz murgilduko, bidelagun izan dugun alanbrezko hesiaren ondoan egin beharko ditugu datozen kilometro gehienak. Eskuinetara, *Elamako* haran trinkoa.

Elamako metalurgia-multzoa

ARTIKUTZAN lau dira ezagutzen diren burdinola hidraulikoak, *Urdallue*, *Elama*, *Goizarin* eta *Artikutzako* parajeetan kokatutakoa. Burdinola hidrauliko baten egitura hiru zati dira berezigarrienak: uharka, arragoa (mineralen kiskaltze-labea) eta lantegia. Azken honek oso egitura konplexua zuen, albo batean gurril hidraulikoak kokatzen ziren ardatzak mugiarazteko, eta gurril hauek gabia eta hauspoa martxan jartzen zituzten. Hauekin batera beste zenbait dependentzi eraikitzen ziren, hala nola langileen bizitokiak, kiskalitako mineral eta egur-ikatzarentzat biltegiak eta "*Olaetxea*" edo burdinolaren arrendatariaren bizilekua.

Elamako haran sakonean murgiltzen bagara baserrimultzoaren aztarnak ikusiko ditugu lehenik, beheaxeago mineralak kiskaltzeko labe baten hondarrak eta errekaren bestaldera, egurrezko zubiaren gainetik pasa ondoren, burdinola hidrauliko zahararen aztarnak. Egun, isiltasunean murgildurik dauden paraje hauetan ez da jarduerarik eta soilik errekaren ur-hotsa eta txorien txortxorra entzun daitezke.

Hona hemen Elamako burdinolaren eskema:



- | | |
|-----------------|----------------|
| 1.- Lantegia | 6.- Hauspoak |
| 2.- Sutegia | 7.- Haize-arka |
| 3.- Gabitegia | 8.- Gabitegia |
| 4.- Gabiartatza | 9.- Biltegiak |
| 5.- Bergamailua | 10.- Ondaska |

Datuak eta eskema hau "*Artikutza Gidaliburu Ekologikoa*"tik hartuak dira

Ezkerrean.
 Alanbrezko mugaren
 ondotik
 Eskuman.
 Otarango basoa
 Erdian.
 Exkax, Artikutzako
 begiralearen etxea
 Behean.
 Artikutzako Benta
 Zaharra



Tontorretik *Arleporaino* (944 m) daraman bidea oso nabarmena eta eroso da. *Ardatzipurdi*, *Ilarbieta* eta *Urkin* gainak igo gabe, ibilbidea erraztu egiten du. Arlepotik *Arriurdiñetara* jaisteko aldapa luzea eta maldatsua da. Xenda hesiaren ondotik doa eta azken metroetan urrutiratzen da bertan dagoen harrobi abandonatu batera heldu aurretik. *Arriurdiñetako* lepoan (576 m) bat egingo dugu pista on batekin. Hau *Goizuetara* iritsi baino lehenago hasten da eta metalezko langa pasata *Elamako* haranetik zehar *Artikutzako* herrira ailegatzen da (langa gurutzatzeko baimena eta giltza behar dira). Leku honetan, *Añarbeko* urtegia egiteko erabili zuten harrobiaren aztarnak ikusiko ditugu.

Aurrera jarraitu nahi badugu, bi aukera izango ditugu lehena, pista hartzea, (aspergarria), eta bigarrena, berriz, hesiaren ondotik doan zidorra jarraitzea. Guk bigarren hau aukeratuko dugu, aldapan gora-behera ibiliko gara, baina paisaia bestelakoa da, *Artikutzako* lurrak batetik eta *Goizuetako*ak bestetik. *Urriztigaina* (614 m), *Lakueta* (599 m), *Elizburu* (679 m), *Sasiandi* (644 m) eta *Altueta* (655 m) izango dira igaroko ditugun gain horien izenak. Azken honi bizkarra eman ondoren, *Ornozko Zubietara* (*Artikutza*) jaisteko pasa behar den *Unalbideko* atakaren ondotik igaroko gara. Metro batzuk aurrerago, pistarekin bat egingo dugu, eta berehala, eskuinetara, beste bi pista. Hemendik aurrera ez dugu berriz hesia ikusiko. Leku honetan kontuz ibili behar da, *Artikutzara* begira jarri eta ezkerretara, beherantz ateratzen den pista hartuko dugu, pinudian barrena. Altura poliki-poliki galtzen hasiko gara eskuinetara, beherantz ateratzen den beste pista batekin topo egin arte. Honek *Berdabiora* eramango gaitu; malda handia, altura azkar galtzen da eta erreka ondora iritsi aurretik gaztainondo mardulak ikusiko ditugu. *Berdabiora* iristeko gutxi falta denean, ezkerretara hartuko dugu, baserrira doan pista utziz (merezi du baserriari bisita bat egitea, horretarako hamar bat minutu joan-etorria egiteko nahikoa delarik). Bide hau jarraituko dugu erreka ondora iritsi arte, hemen *Berdabioko* argi-zentral txikia ikusiko dugu (250 m). Zubia pasa eta berehala, kantinplorak urez betetzeko aukera izango dugu, gorantz abiatu aurretik.



Berdabiyo' ren kantik

BERDABIYO, urrezko txanponen falsifikatzailea izan zela dio ahozko tradizioak. Delitu hau Iruñeko kartzelan ordaindu zuen eta bertan, urtebetean zehar, hirurehun eta hirurogeita bost bertso moldatu zituen, egun bakoitzeko bertso bat. Horietatik lehen bostak, 1933. urtean argitaratutako "Anuario de Eusko-Folklore" XIII. liburuko 75-76. orrialdeetan jasota daude. Hauetako bertso batzuei Mikel Laboa abeslari ezagunak musika jarri eta oso ezagunak egin ziren.

1
Berdabiyo' ren xaldiyak
Lau anak ditu txuriyak.
Salto batian irago zuen
Zazpi estatuko esiya;
Beste bat igaro balu,
Seguru zuen biziya.

2
Nere andriak ekari zuen
Aranaz' tikan dotia.
Obe zukian ez balu ikusi
Berdabiyo' ko atia;
Orain etzuen ark idukiko
Dadukan pesalunbria

5
Ongi-ongi oroitu ari
Zer egin uen Elama' n...
Jaraikin onikan izan balu
Difuntu orek Lesaka' n,
Ik eurek bearko yuen
Ni orain nagon atakan.

3
Neriak ez nau hainbeste oroitzen
Bañan ezpainaz bakara...
Azitzekuak an utzi ditut
Bi seme ta iru alaba.
Jaun zerukuak adi dezala
Ayen amaren negara.

4
Goizueta' n ba' da gizon bat;
Deitzen diote Trabuko;
Itzak eder eta biyotza paltso
Ari etzayo paltako...
Egiña dagon dilijentiya
Berari zayo damuko.

Hemendik aurrera aldapa gogortu egiten da, bide maldatsua da. Hasieran, lurra porlanezkoa da eta oso poliki altura hartzen hasiko gara beste pista batekin topo egin arte. Hemen erne ibili behar da, eskuinetara doana hartu eta bide zabala jarraituz *Kausorora* iritsiko gara (610 m). Lehenago, arrokan egindako aska txiki batetik ura edan ahal izango dugu. Itzulia amaitu dugu, orain erraiak ezagutzea falta zaigu.

"Iragana loak harturik, utzi dezagun lo" □



ARGAZKAK: MIKEL ARRIZABALAGA

Goian.
Aiako Harria Bunaniarriko tontorretik
Behean.
Artikutza herria



EGINDAKO IBILBIDEA

DATUAK


Luzera: 32 kilometro

Desnibela: 1500 metro

Denbora: 8 ordu (atsedenak kontutan hartu gabe)

Bibliografia

- "Euskal Herriko mendiak. 300 ibilbide". Miguel Angulo. ELKAR argitaletxea. 1988.
- "Euskal Herriko mendiak. 400 ibilbide". Miguel Angulo. ELKAR argitaletxea. 1995.
- "Pirinioak I: 1000 igoera". Miguel Angulo. ELKAR argi-taletxea. 1992.
- "Euskal Herriko Inguru Gordeak". Miguel Angulo. ELKAR argitaletxea. 1987.
- "Gure mendietako bide ezezagunak". Miguel Angulo. ELKAR argitaletxea. 1989.
- "Euskal Herriko 100 gailur eta 1000 txoko". L.P. Santiago. ELKAR argitaletxea. 1990.
- "Guía del Pirineo Vasco". Miguel Angulo. ELKAR argi-taletxea. 1990.
- "Parajes Naturales de Euskal Herria". Mikel Tellagorri y Enea Itxina. SUA edizioak.
- "GR 11 Euskal Pirineoa". Federación Navarra de Montaña. SUA edizioak. 1990.
- "GR 121 Gipuzkoako Bira". Federación Gipuzkoana de Montaña. SUA edizioak. 1991.
- "Rutas y paseos por Aiako Harria y Artikutza". Mikel Arrizabalaga. SUA edizioak. 1997.
- "Montes de Navarra". Varios autores. SUA edizioak. 1991.
- "Bazterrik bazter". Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa.
- "Mendiak III". Varios autores. ETOR argitaletxea. 1982.
- "Mendiak V". Varios autores. ETOR argitaletxea. 1983.
- "Euskal Herriko mendien katalogoa". Euskal mendizale Federakundea. Pyrenaika. 1990.
- "Artikutza gidaliburu ekologikoa". Sociedad de Ciencias Aranzadi. Ayuntamiento de Donostia. 1989.
- "Pyrenaika aldizkaria zbk. 134" (1984)
- **Kartografia**
- "Aiako Harria. Blanditz-Kopako Harri-Artikutza". 1:20.000. Imanol Goikoetxea. 1992.
- "Artikutza-Mendaur-Erakurri-Iruñarri-Loitzate". 1:25.000. Sociedad de Ciencias Aranzadi. Imanol Goikoetxea. 1995.
- "Artikutza". Sociedad de Ciencias Aranzadi. Donostiako Udala.
- "Vera de Bidasoa (25-5)". 1:50.000. S.G.E. 1989.



Caminando alrededor de Artikutza

MIENTRAS caminamos por los montes que conforman el circo de Artikutza apenas encontraremos cimas que superen los mil metros, pero si completamos la vuelta a través de los límites de la finca tendremos la inigualable oportunidad de disfrutar y gozar con la visión de los frondosos bosques que se deslizan desde las laderas de los montes hasta el fondo de los valles. Habremos recorrido 32 km y superado un desnivel de 1500 metros. A través de los siglos, estos

parajes han sido mudos testigos de las más diversas actividades generadas por el hombre y de las cuales podemos encontrar innumerables vestigios diseminados a lo largo de toda la finca, como el complejo metalúrgico de Elama. A través de esta excursión casi no nos adentramos en las entrañas de este privilegiado lugar, dejaremos que todos los misteriosos tesoros que guarda queden por ahora en el regazo de la naturaleza, sin descubrir, en silencio..